**DINAMIZACIÓN DE FOROS DE AGENDA 21 LOCAL EN GARAI**

**TOKIKO AGENDA 21eko FOROEN DINAMIZAZIOA GARAIN**

*GARAI, 2012ko abenduaren 12a*
*GARAI, 12 de diciembre de 2012*

| | | |
|---|---|---|
| **Data**: 2012/12/12<br>**Fecha**: 12/12/2012 | **Ordua**: 19:00 – 20:15<br>**Hora**: 19:00 – 20:15 | **Lekua**: Garaiko Udaletxea<br>**Lugar**: Ayuntamiento de Garai |

**Parte-Hartzaileak/Asistentes**

**Udaletxeak / Ayuntamientos**

- Gontzal Sarriagoitia (Alkatea/Alcalde)
- Itxaso Zabala (Administrazioa/ Administración)

**Herritarak / Ciudadania**

- 9 herritar / 9 ciudadanos

**Kontsultoria / Consultora**

- Nahia Larrabeiti

| 1. Bienvenida y exposición de los objetivos | 1. Ongietorria eta aurkezpena |
|---|---|
| Agradecimiento y bienvenida por parte de la consultora encargada de dinamizar el foro. Se contextualiza el encuentro dentro del marco de Agenda Local 21 y se procede a la presentación del orden del día y de los objetivos del foro:<br><br>• Situación de Garai dentro de la Agenda Local 21.<br>• Respuesta a las propuestas ciudadanas del último Foro AL21<br>• Evaluación del Programa de Actuaciones Sostenibles 2012.<br>• Actuaciones Comarcales Sostenibles.<br>• Propuesta de actuación sostenible municipal para el 2013.<br>• Nuevas propuestas ciudadanas.<br>• Conclusiones y próximos pasos. | Entitate Koordinatzaileak ongietorria eta eskerrak ematen die bertaratutakoei Tokiko Agenda 21eko azalpen bilerara hurbiltzearren. Lehendabizi, eguneko gai zerrenda azaltzen da, hala nola, foroko helburuak:<br><br>• Garaiko egoera Tokiko Agenda 21an.<br>• TA21eko azken foroko herri proposamenei erantzuna.<br>• 2012ko Ekintza Iraunkorren Programaren ebaluaketa.<br>• Eskualdeko Ekintza Iraunkorren zerrenda.<br>• 2013 urterako Udaletxeko proposamen iraunkorren zerrenda.<br>• Herri-proposamen berriak.<br>• Ondorioak eta hurrengo urratsak. |
| **2. Situación de Garai dentro de la AL21** | **2. Garaiko egoera Tokiko Agenda 21an** |
| A modo de inicio, la consultora comienza ubicando el foro de evaluación de AL21 dentro de un calendario cíclico que anualmente los Ayuntamientos y municipios llevan a cabo como ideario metodológico de la gestión sostenible. | Tokiko Agenda 21eko Ebaluaketa Foroa, Udaletxe eta udalerrien egutegi zikliko baten barruan sartuta dagoela ezagutarazten da, beti ere eremu iraunkorra kontutan izanik. |

| | |
|---|---|
| A continuación se realiza un recordatorio del significado de la AL21, y expone la importancia de ésta dentro de la gestión municipal.<br><br>Finalmente, se subraya la relevancia de la participación ciudadana en los foros de AL21 como espacios de interrelación entre la sociedad municipal y Ayuntamiento, con el objetivo de intercambiar entre todos los agentes el devenir de la AL21 en Garai. | Jarraian, Tokiko Agenda 21aren zentzua azaltzen da, udal kudeaketaren barruan duen garrantzia azpimarratuz.<br><br>Azkenik, TA21eko foroak herritarrak eta Udaletxeko agintariak biltzen dituen gune bezala azaltzen da, non herri partaidetza ezinbestekoa den elkargune hauek aurrera atera ahal izateko. Denok batera Garaiko etorkizunaren inguruko gaien inguruan mintzatzea du helburu. |
| **3. Respuesta a las propuestas ciudadanas de 2011** | **3. 2011ko Herri-proposameni erantzuna** |
| El Ayuntamiento comienza su intervención dando respuesta a las propuestas ciudadanas del último foro del 2011:<br><br>• **Sobre la accesibilidad desde la Casa de Cultura hasta el Ayuntamiento…** las obras comenzaron en junio y finalizaron en julio. Se ha urbanizado la zona de Kurutzondo, habilitando una acera que une el camino que viene desde la Casa de Cultura con la acera ya existente junto a San Miguel, 13. Se ha instalado un paso elevado para peatones que une esta acera con la acera de las viviendas de San Miguel, 16, por lo que la accesibilidad en el casco urbano queda completada.<br>Una participante se queja porque los coches aprovechan la acera para aparcar.<br>El Ayuntamiento rebate la apreciación. Se trata de casos puntuales que forman parte del mal hábito bastante generalizado en Garai de aparcar en sitios prohibidos, como la entrada al bar, el frontón… La solución no es fácil ya que se reconoce que las medidas disuasorias que se comentan (instalar pivotes o sanciones administrativas) generarían en | Udaletxeak hitza hartzen du 2011ko azken foroan herritarren aldetik jasotako proposamenei erantzuna emateko:<br><br>• **Kultur Etxetik Udaletxera doan bidearen irisgarritasunaren inguruan…** lanak ekainean hasi eta uztailean bukatu ziren. Kurutzondo zonaldea urbanizatu egin da, Kultur Etxetik datorren bidea eta San Miguel 13 inguruan dagoen ohiko espaloia lotzen dituen espaloi berri bat prestatuz. Oinezkoentzako gaineko pasabide bat ere ezarri egin da, espaloi berria hau eta San Migel 16ko etxebizitzen espaloia konektatzen dituena. Lan hauekin erdigunearen irisgarritasuna bermaturik geratzen da.<br>Herritar batek kexa botatzen du espaloia kotxeek aparkatzeko aprobetxatzen dutelako.<br>Kasu puntualak baino ez direla azaltzen du Udalak. Garain nahiko zabaldurik dago debekatutako lekuetan aparkatzea, hala nola tabernaren aurrealdean, frontoian… Arazo honen irtenbidea ordea ez da erraza. Zenbait neurri disuasorio komentatzen dira (piboteak ezartzea edota isun administratiboak) baina hauek ezarriz gero problematika |

| | |
|---|---|
| sí problemáticas mayores.<br><br>• **Sobre la mayor presencia de la Ertzaintza en el municipio…** el Alcalde se reunió con el director de la Ertzaintza de Durango y se solicitó mayor vigilancia para el municipio. Desde entonces se ha comprobado que se patrulla más a menudo. En relación a los robos en caseríos, se recuerdan los trípticos informativos que difundió la Ertzaintza a través del Ayuntamiento. En ellos se apuntaban pautas de actuación y medidas de seguridad en torno a los robos en caseríos y zonas alejadas.<br><br>• **Sobre el cierre de la escombrera…** apenas transitan camiones actualmente. Se han puesto árboles y las obras están a punto de finalizar. | handiagoa sortaraziko litzatekeela uste da.<br><br>• **Ertzaintzaren presentzia handiagoa udalerrian izatearen inguruan…** Alkatea Durangoko Ertzaintzaren zuzendariarekin batzartu zen herrirako zaintza zorrotzagoa eskatzeko. Geroztik sarriagoa patruilatzen dutela baieztatu da.<br>Baserrietako lapurreten inguruan, Udalak hedatu zituen Ertzaintzaren triptiko informatiboak gogoratzen dira. Hauetan, baserrietako lapurreten inguruan hartu beharreko neurri eta jokabideei buruzko informazioa eskaintzen zen.<br><br>• **Hondakindegiaren itxieraren inguruan…** kamiorik ia ez da ibiltzen jadanik. Zuhaitzak jarrita daude eta obrak amaitzear egon behar dira. |
| **4. Evaluación del programa de acciones sostenibles 2012** | **4. 2012eko Ekintza Iraunkorren Programaren ebaluaketa.** |
| A continuación, de mano de la Alcaldía se explican las acciones desarrolladas a lo largo del año 2012, así como los detalles de las mismas:<br><br>➢ **Agua:** se han solicitado presupuestos para colocar un sistema en la entrada del depósito de Trumoita que cierre el paso impidiendo que el agua sucia entre cuando haya fuertes lluvias. Con los dos depósitos que tiene Garai se puede abastecer al conjunto del municipio durante una semana, por lo que cuando vengan fuertes lluvias se cerrará el paso hasta que se advierta que el agua entra suficientemente limpia. En enero se pondrá en marcha el sistema.<br>Un ciudadano sugiere aprovechar el agua sobrante del | Udaletxeko agentek hitza hartzen dute 2012an zehar garatutako ekintza iraunkorren zerrenda aipatzeko, bai eta bakoitzaren betetze maila ere:<br><br>➢ **Ura:** aurrekontuak eskatu dira Trumoitako biltegi sarreran sistema bat jartzeko euriak direnean uraren pasua zarratzeko; horrela ur zikina sartzea galaraziz. Urtarrilerako martxan jarriko da sistema. Udalerriko bi biltegiak aste betez herriko etxebizitza guztietara ura hornitzeko gai dira, beraz sistema itxi egingo da beharrezkoa denean eta uraren kalitatea ona dela konprobatzen denean berriz zabalduko litzateke. Urtarrilerako sistema martxan jartzea espero da.<br><br>Herritar batek goiko biltegiko soberako ura erabiltzea |

| | |
|---|---|
| depósito de arriba. Se le responde que no se ha barajado la opción, primero porque nunca ha habido escasez de agua y segundo porque al no haber regadíos alrededor, tampoco se ha considerado necesario.<br>Se discute si el sobrante de los depósitos está tratado. El Alcalde comenta que aprovechará para informarse al respecto con los técnicos de la obra. | proposatzen du. Momentuz ez da sobrantea erabiltzean pentsatu, batetik ur faltarik egon ez delako eta bestetik, inguruan sail ureztaturik ez dagoenez beharrezkoa ikusi ez delako.<br>Biltegiko soberako ura trataturik dagoen eztabaidatzen da. Obrak hasten direnean asuntoa teknikariekin jorratuko duela komentatzen du Alkateak. |
| ➢ **Wi-Fi:** la ciudadanía se queja de los problemas que están teniendo con el Wi-Fi cuando hay tormentas. EL Ayuntamiento explica que de todas formas la velocidad es escasa pero que legalmente no se puede ofrecer más porque supondría estar haciendo competencia desleal a los operadores móviles. Para ello hay que darse de alta como empresa emisora de señal Wi-Fi. Se están gestionando los trámites y se ha conseguido ya el permiso de telecomunicaciones para funcionar como empresa emisora de señal wifi. Se puede emitir la señal y se puede dar de alta a usuarios. Aun así el límite de la señal será de 256kb, que se corresponde con un acceso a Internet básico.<br>Se van a montar 6 o 7 antenas más para que todo el municipio tenga acceso al Wi-Fi. La obra para difundir el Wi-fi ha sido adjudicada a Hispadata. | ➢ **Wi-Fi:** ekaitza dagoenean konekzioarekin dauden arazoengatik kexatzen dira bertaratutakoak. Udaletxeak, konekzioaren gaitasuna eskasa dela onartzen du, baina legez ezin dela dagoena baino konekzio indartsuagorik eskaini, telefonia mugikorreko operadoreekiko konpetentzia desleiala litzatekeelako. Horretarako, Wi-fi seinalea igortzen duen enpresa gisa izena eman behar izan du Udalak. Tramiteetan dago prozesua eta zenbait aurrerapauso eman dira jadanik: telekomunikazioen baimena lortu da wi-fi seinalea igortzen duen enpresa gisa funtzionatzeko , seinalea igorri daiteke eta erabiltzaileei alta eman ahal zaie jadanik. Hala ere momentuz 256kb limitea izango du seinaleak, interneten gutxieneko nabigazioa egiteko ematen duena.<br>6/7 antena ezarriko dira udalerrian zehar herritar guztiek Wi-fi izan dezaten. Hispadata enpresari esleitu zaio Wi-fi sarea udalerri guztira hedatzeko obra. |
| ➢ **Página Web:** la pagina web está ya completamente diseñada. Desde el Ayuntamiento se ha dado el visto bueno a las últimas modificaciones. Falta que la empresa comunique la fecha de apertura de la página. Dentro de la página se habilitará un espacio para que la ciudadanía pueda ir haciendo los trámites online. | ➢ **Web orria:** web orriaren diseinu finala eginda dago. Azkeneko aldaketei oniritzia eman die Udalak. Enpresa diseinatzaileak orrialdearen irekitze-data zehatzea baino ez da falta. Tramiteak on-line egin ahal izateko zerbitzua edo atala ere barneratzen du orriak. |
| ➢ **Reubicación de contenedores:** todavía falta algún contenedor pero en la mayoría de las ubicaciones están ya realizados los cambios. Faltan dos de vidrio. | ➢ **Edukiontzien berrantolaketa**: kontenedoreren bat falta den arren, herriko kokapen gehienetan zaborrontzien berrantolaketa eginda dago. Beirazko bi ontzi falta dira. |

| | |
|---|---|
| Se propone desde la ciudadanía poner en las isletas un cartel que explique en qué contenedor depositar cada residuo. | Hondakin bakoitza zein kontainerrera bota behar den argitzeko irizpideekin kartel informatiboak isletetan kokatzea. |
| **5. Acciones sostenibles comarcales** | **5. Eskualdeko Ekintza Iraunkorrak** |
| A continuación, Gestiker expone la situación de la sostenibilidad en el Durangesado explicando los proyectos comarcales que han sido diseñados para ser emprendidos: | Jarraian Gestikerrek eskualde mailara bideratzen du foroa, Durangaldean burutzen ari diren eta burutuko diren ekintzen berri emateko: |
| ○ **Agenda 21 Escolar: s**e reconoce como un compromiso y un plan de acción de la comunidad educativa para trabajar dentro de la Agenda Local 21.<br>La temática de este curso versa sobre el consumo de los productos de la tierra, a partir de la cual se desarrollarán diversas acciones (video-foros, visitas…), así como encuentros para implicar en la iniciativa a diferentes colectivos (profesores, familias y ayuntamientos). | ○ **Eskola Agenda 21 proiektua:** hezkuntza elkartearen ekintza plana da, TA21aren barnean lan egiteko.Kurtso honetako gaia, lur produktuetako kontsumoan datza. Gai hau irizpide harturik zenbait ekintza burutuko dira (bideo-foroak, bisitaldiak…), hala nola bestelako agenteen (irakasleak, familiak eta udaletxeak) inplikazioa lortzeko zenbait elkargune eta ekimen. |
| ○ **Asesoramiento ambiental a empresas:** Se trata de un proyecto impulsado que tiene como finalidad incorporar la visión del tejido empresarial en la sostenibilidad municipal. En el 2010 se realizó un "Proyecto Piloto" para regular las actividades empresariales que no se ajustaban a la normativa legal y sostenible, en el que participaron varios municipios del Duranguesado, entre ellos Atxondo.<br>Entre 2011 y 2013 se dará continuación al "Proyecto Piloto" con empresas ya participadas en el primer paso del proceso, a las que se les practicará un seguimiento, y nuevas empresas que se incorporarán al mismo. | ○ **Ingurugiro aholkularitza enpresei:** udalerriko enpresak modu iraunkorrago baten lan egin dezaten egina da, udalerriko iraunkortasuna hobetu dezan. 2010an proiektu pilotu bat jarri zen martxan iraunkortasun araudiak betetzen ez zuten enpresak identifikatzeko. Bertan, Durangaldeko zenbait udal parte hartu zuten, hauen artean, Atxondo.<br>2011 eta 2013 urteen bitartean proiektu pilotu honi jarraipena emango zaio lehengo pausuko enpresei segimendua ezarriz, eta enpresa berriak proiektura gehituz. |
| ○ **Mediciones de calidad del aire:** se realizarán dos campañas por cada uno de los 11 municipios de la Mancomunidad. La | ○ **Airearen kalitatearen neurketak:** Amankomunazgoa osatzen duten 11 udalerrietako bakoitzean bi kanpaina ospatuko |



EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO
INGURUMEN, LURRALDE PLANGINTZA, NEKAZARITZA ETA ARRANTZA SAILA
DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE, PLANIFICACIÓN TERRITORIAL, AGRICULTURA Y PESCA

| | |
|---|---|
| primera se llevará a cabo en invierno y la segunda en verano y cada campaña tendrá una duración de 2 semanas.<br>Se trata de conocer las variaciones de la calidad del aire en función de la estacionalidad. | dira, bata neguan eta bigarrena udan. Kanpaina bakoitzak bi asteko luzera izango du.<br>Urtaroaren arabera airearen kalitatean ematen diren aldaketak ezagutzean datza froga. |
| ○ **Inventario de calderas:** se basa en realizar un inventario de las calderas domésticas de la comarca. Se trata de contribuir con la mejora de los niveles de la calidad del aire, ya que el sector residencial y doméstico es el responsable del 8% de la contaminación atmosférica y representa el 40% del consumo total de energía de los municipios. | ○ **Galdara inbentarioa:** eskualdeko etxe-galdaren inbentarioa egitean datza. Airearen kalitatea hobetzen laguntzeko egiten den proiektua da. Izan ere, kutsadura atmosferikoaren %8a etxeko sektoreak eragiten du, eta udalerrietako energi kontsumoaren %40 ere etxeko sektoreari dagokio. |
| ○ **Mejora del Servicio de Recogida de RU:** se trata de actualizar y mejorar el Servicio de Recogida de RU de la MMD. Se eliminarán los contenedores pequeños de carga trasera y se centralizará la recogida creando isletas a la entrada de cada barrio que agrupen los diferentes tipos de contendores de RU. | ○ **HH Bilketa Zerbitzuaren hobekuntza:** DMAren Hiriko Hondakinen Bilketa Zerbitzua eguneratu eta hobetzean datza. Atzeko kargako edukiontzi txikiak kenduko dira, eta bilketa, auzoetako sarreretan eratuko diren irletetan zentralizatzen joango da. Irleta hauek edukiontzi mota ezberdinak bateratuko dituzke. |
| ○ **Estudio implantación Sistema de Recogida de Residuo Orgánico:** desde la Mancomunidad, y en relación al proyecto anterior, se va a estudiar la viabilidad técnica y económica de diferentes sistemas de recogida de residuo orgánico. Se trata de estudiar la posibilidad de destinar la fracción orgánica de los RU al compostaje. | ○ **Hondakin Organikoaren Bilketa Sistema ezartzeko ikerketa:** Amankomunazgotik, eta aurreko puntuari lotuta, hondakin organikoa biltzeko sistema ezberdinen bideragarritasun tekniko eta ekonomikoa hausnartuko da. Frakzio hondakina, konpostajera bideratzearen aukera aztertzean datza. |
| **6. Propuesta de Actuación Sostenible Municipal para el 2013** | **6. 2013 urterako Udaletxeko proposamen iraunkorren zerrenda** |
| El Ayuntamiento coge la palabra para enumerar aquellas acciones previstas para el próximo ejercicio:<br><br>**- Agua:** será la prioridad. Se han destinado 60.000€ para el arreglo en infraestructuras de abastecimiento de agua y | Udaletxeak hitza hartzen du, datorren urteari begira gauzatuko diren ekintza berrien zerrenda aurkezteko:<br><br>-**Ura:** lehentasuna izango da. 60.000€ko partida bideratu da ur-hornikuntza eta saneamendu azpiegituren konponketak |

| | |
|---|---|
| saneamiento.<br><br>- **Caminos Vecinales:** se han adjudicado las obras para echar slurry (una capa fina de lechada bituminosa) para mejorar la adherencia de los neumáticos de los vehículos, mejorando la seguridad en caso de lluvia o hielo, en los tramos Garaizar-cruce Santa Catalina y Arteazar-Milikubizker (en los tramos de pendiente y sombríos). | gauzatu ahal izateko.<br><br>- **Auzo bideak:** slurry-a botatzeko lanak esleitu egin dira (emultsio bituminoso geruza fin bat). Honek ibilgailuen pneumatikoen itsaspena hobetu egiten du, euriteak edota elurra dagoenean Garaizar-Santa Katalina bidegurutzea eta Arteazar-Milikubizker zonen segurtasun maila handituz (aldapatsuak eta laiotzak diren tarteetan batik bat). |
| **7. Propuestas ciudadanas** | **7. Herri-proposamenak** |
| A continuación se da paso a los ciudadanos y las ciudadanas para que realicen sus aportaciones en torno a la Agenda Local 21:<br><br>• ***Aparcamiento:*** se comenta el tema del mal aparcamiento. Se pide al Ayuntamiento que no se deje aparcar en lugares prohibidos: encima de la acera, en el acceso al bar, en la parada de autobús…<br><br>• ***Autobús:*** desde la ciudadanía se reitera un año más la demanda de ampliación del servicio de autobuses.<br><br>En relación al tema del transporte, otro participante propone crear una plataforma en la página web del municipio para compartir vehículos. | Herritarrek hitza hartzen dute Tokiko Agenda 21aren inguruan euren ekarpenak egiteko:<br><br>• ***Aparkalekuak:*** txarto aparkatzen duten kotxeen gaia komentatzen da. Debekatutako tokietan ez aparkatzea eskatzen da: espaloi gainean, tabernarako sarreran, bus geltokian…<br><br>• ***Autobusa:*** aurreko urteetan bezalaxe herritarren aldetik autobusen frekuentziak areagotzea eskatzen da.<br><br>Garraioaren gaiarekin lotuta, partaide batek web gunean plataforma bat eratzea proposatzen du kotxe partikularrak konpartitzeko helburuarekin. |
| **8. Próximos pasos y Despedida** | **8. Agurrak eta hurrengo urratsak** |
| Una vez finalizada la exposición, se comunica la metodología del | Behin aurkezpena bukatuta, foroan jorratutakoa aktan jasota geratuko dela gogoratzen zaie bertaratutakoei. Honez geroztik, |

| | |
|---|---|
| levantamiento del acta, el envío de ésta hacia el Ayuntamiento y su posterior disposición pública a la sociedad de Atxondo.<br><br>Se agradece a todos y todas su presencia y participación en este Foro, al igual que se aprecia la predisposición de los y las asistentes a participar exponiendo sus inquietudes y preguntas. | akta Udaletxera bidali egingo da, guztiontzako publikoa izanik.<br><br>Guztion etorrera eta parte-hartzea eskertu egiten da, bakoitzaren proposamenak, ideia berriak eta ardurak baita estimatuz. |